



## Larrialdi zentroaren zerbitzua.

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Egoitzako arreta zerbitzua.

**Baliabidearen xedea:** Egoitzan emandako zerbitzua, aldi mugatu baterako, berehalako harrera egiteko genero indarkeriaren biktimei eta haien seme-alabei, edo biktimak bere tutoretza, kuradoretza edo zaintzapean edo harreran dituen pertsoneri, premian badaude, edo ohiko etxebizitzatik berehala irteten laguntzeko.

**Onuradunak:** Genero indarkeriaren biktimak, bakarrik edo haien seme-alaba adingabeekin edo biktimak bere tutoretza, kuradoretza edo zaintzapean edo harreran dituen pertsonekin.

**Jasotzeko baldintzak:**

- Adinez nagusia izatea edo adingabe emantzipatua.
- Berehalako ostatua behar izatea etxean duen defentsa-gabeziagatik.

**Zerbitzua irekita:** Eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

**Zerbitzuaren intentsitatea:** Jarduera programaren arabera, hauxe izanen da:

- Ostatua.
- Mantenua: hiru otordu egunean.
- Harrera eta orientabide soziala: astean 14 ordu.

Egonaldiaren iraupena: zazpi egun, hilabetera luzatu daitezkeenak.

**Emateko epea:** Berehala.

**Ordainketan parte hartzea:** Ez.

**Jarduteko eremua:**

Nafarroako Foru Komunitatea.



-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----